

# XEDAPEN OROKORRAK

## OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

### 154

*EBAZPENA, 2019ko urtarrilaren 8koa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, honako ebazpen honetako hutsak zuzentzeko dena: «Ebazpena, 2018ko abenduaren 4koa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, Transportes Urbanos de Vitoria SA (Tuvisa) enpresak 2019. urterako aurkeztutako hiri barruko bidaiari-garraioaren zerbitzu publikoaren tarifak onartzekoa.»*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 271/2008 Dekretuaren 18.2.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Horrelako hutsak atzeman dira ebazpen honen testuan: Ebazpena, 2018ko abenduaren 4koa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, Transportes Urbanos de Vitoria SA (Tuvisa) enpresak 2019. urterako aurkeztutako hiri barruko bidaiari-garraioaren zerbitzu publikoaren tarifak onartzekoa (2018ko abenduaren 19ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 243. zk.). Beraz, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

– 2018/6202 (3/2) orrialdean, erabaki-atalaren lehenengo puntuan ageri den taularen ordeztu, beste hau jaso behar da:

Titulua	2019ko tarifak (2019-02-01etik aurrera) Euroetan, BEZa barne
Txartel arrunta	1,40
Familia ugariak 20	1,10
Familia ugari bereziak 50	0,70
BAT txartel orokorra	0,60
Familia ugariak 20	0,48
Familia ugari bereziak 50	0,30
BAT txartel pertsonalizatua (>=% 33 eta <% 65 bitarteko desgaitasuna duten pertsonak, edo <2,5 IPREM errenta soziala dutenak)	0,15
Familia ugariak 20	0,12
Familia ugari bereziak 50	0,08
BAT txartel berezia (>=65 urtekoak; >=% 65eko desgaitasuna dutenak; <2,5 IPREM errenta soziala dutenak)	0,15
Familia ugariak 20	0,12
Familia ugari bereziak 50	0,08
BAT 30D	30,00
Familia ugariak 20	24,00
Familia ugari bereziak 50	15,00
30D Gaztea	25,50
Familia ugariak 20	20,40
Familia ugari bereziak 50	12,75
Gautxori txartel arrunta	1,85
Familia ugariak 20	1,40
Familia ugari bereziak 50	0,90
Gautxori BAT	1,39
Familia ugariak 20	1,11
Familia ugari bereziak 50	0,70
Bux	1,50
Familia ugariak 20	1,20
Familia ugari bereziak 50	0,75
Eguneroko abonamendua	5,00
2 egunerako abonamendua	7,50
3 egunerako abonamendua	10,00
Doakoa	-

– 2018/6202 (3/3) orrialdean, erabaki-atalaren 6. apartatuan, honela dio:

«6.– Erabiltzaileei Ondorio Askotariko Errenta Adierazle Publikoa (IPREM) bider 2,5 baino diru-sarrera txikiagoak izan beharko dira 65 urtetik gorako tituluak, % 66ko desgaitasuna edo hortik gorakoa dutenen tituluak eta % 33tik gorakoa baina % 66tik beherako desgaitasuna dutenen tituluak erabiltzeko eskubidea ematen duten karnetak eskuratu edo berritzeko»

Baina honela esan behar du:

«6.– Erabiltzaileek eskuratu edo berritu nahi badituzte 65 urtetik gorako tituluak, % 66ko edo hortik gorako desgaitasuna dutenen tituluak eta % 33tik gorako baina % 66tik beherako desgaitasuna dutenen tituluak erabiltzeko eskubidea ematen duten txartelak, baldintza hau bete beharko dute: Ondorio Askotariko Errenta Adierazle Publikoa (IPREM) bider 2,5 baino diru-sarrera txikiagoak izatea».

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 8a.

Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakaria,  
JORDI CAMPÁS VELASCO.